

- 1. Kultur programa hauetako zein ez dira egin Barañaingo Kultura Etxeko espazioetan azken bi urteetan (2016-2017)?**
 - a) Zineko astearteak, Ostegunak historiarekin
 - b) Antzerki-tailerren erakustaldia, Ipuin-maratoia
 - c) Barañaingo Nazioarteko Txotxongilo eta Marioneta Jaialdia, Afrikaren alde mugitzen gara

- 2. Zenbat lehiaketa edo sariketa antolatu ziren 2016an Kultura Arloan?**
 - a) Hiru sariketa, bina modalitatetan.
 - b) Lau sariketa.
 - c) Sei sariketa.

- 3. Barañaingo Kultur Ondare Immateriala proiektuak elkarrizketak egin zizkien hainbat barañaindarrereri 2017an. Zenbat pertsonari?**
 - a) 20 pertsonari.
 - b) 18 pertsonari.
 - c) 25 pertsonari.

- 4. Artista hauetako zeini aitortu dio azken hiru urteetako ibilbide historikoa Kultura Etxeak (1924an jaio zen, eta Barañainera bizitzera etorritakoa da):**
 - a) Juan Faro.
 - b) Florentino Fernández de Retana.
 - c) José Ansoáin.

- 5. Zer izendapen du M^a Luisa Elío liburutegian egiten diren kultura-tailerren zikloak?**
 - a) Liburutegiko "kartara" tailer-zikloa.
 - b) Liburutegiko "udazkeneko" kultura-tailerren zikloa.
 - c) Liburutegiko "su ondoko kontakizunak" tailer-zikloa.

- 6. Barañaingo Liburutegiak M^a Luisa Elío izena hartu du arestian. Nor izan zen M^a Luisa Elío?**
 - a) Idazle, aktore eta zinegile nafar eta mexikarra.
 - b) Gabriel García Márquez idazlearen editorea.
 - c) Mexikora erbesteratutako espainiarren musikagile nafarra.

- 7. Barañaingo zer kultura-elkarte sortu zen 1985ean?**
 - a) Barañaingo Pueblo Viejo kantu-elkartea.
 - b) Barañaingo Bertsolariak.
 - c) Barañaingo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa elkarte.

8. Barañaingo zer kultura-elkarte da sarituena?

- a) Coral Barañaín Abesbatza.
- b) Barañaingo Txistulariak.
- c) Barañaingo Canciones de Siempre elkarte.

9. Barañaingo zer kultura-elkarte sortu zen 1977an eta, beraz, da antzinakoena?

- a) Grupo de Danzas Harizti Barañaingo Dantza Taldea.
- b) Barañaingo gaitariak.
- c) Barañaingo Abesbatza.

10. Kultura-jarduera hauetako zein egin zen estreinako aldiz 2017an?

- a) Barañaingo Nazioarteko Txotxongilo eta Marioneta Jaialdiko artisautza-feria.
- b) Eguberrietako feria.
- c) Zinea atari zabalean.

11. Barañaingo Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren IV. kapituluaren 11. artikulua haiek emateko printzipioak ezartzen ditu. Hiru arau orokor hauetatik zein da zuzena?

- a) Oro har, ordenantzaren babespeko jardueretarako diru-laguntzen zenbateko osoak ezin du izan aurkeztutako aurrekontuaren % 50 baino handiagoa.
- b) Oro har, ordenantzaren babespeko jardueretarako diru-laguntzen zenbateko osoak ezin du izan onartutako aurrekontuaren % 50 baino handiagoa.
- c) Oro har, ordenantzaren babespeko jardueretarako diru-laguntzen zenbateko osoak ezin du izan justifikatutako aurrekontuaren % 50 baino handiagoa.

12. Barañaingo Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren 17. artikulua ez-betetzeak eta ondorioak ezartzen ditu. Emandako diru-laguntzaren helburua beteko ez balitz, ondorio hauetako zein da zuzena?

- a) Jasotako zenbateko osoa edo haren zati bat itzuli beharko da, kasu guztietan.
- b) Jasotako zenbateko osoa edo haren zati bat itzuli beharko da, baita diru-laguntzaren helburua betetzen ez den unetik sortutako berandutza-interesak ere.
- c) Jasotako zenbateko osoa edo haren zati bat itzuli beharko da, baita diru-laguntza ordaindu zen unetik sortutako berandutza-interesak ere.

13. Barañaingo Udalak antolatutako kultur ikastaro eta jardueretan izena emateko, inskribatzeko edo parte hartzeko baldintzak arautzen dituen Ordenantzaren 6.3 artikuluari dagokionez, zein da esaldi zuzena?:

- a) Erroldatu gabekoen tarifa izanen da 6.1 atalean zehaztu den zerbitzuaren zuzeneko kostua gehi % 25.
- a) Erroldatu gabekoen tarifa izanen da 6.1 atalean zehaztu den zerbitzuaren zuzeneko kostua gehi % 35.
- a) Erroldatu gabekoen tarifa izanen da 6.1 atalean zehaztu den zerbitzuaren zuzeneko kostua gehi % 15.

14. Barañaingo Udalaren kultur areto eta guneen erabilera arautzen duen Ordenantzaren 7. artikulua kuotak ordaintzeko salbuespen-kasuak ezartzen ditu. Erakunde hauetako zeinek egin ditzake jarduerak Kultura Etxean tasarik ordaindu gabe?

a) Musika Udal Patronatuak, Lagunak Udal Zerbitzuak eta Barañain Auditorioak.

b) Barañaingo Udalak eta herrian egoitza duten irabazi asmorik gabeko kultur eta gizarte elkarteek, Nafarroako Gobernuako Elkartearen Erregistroan behar bezala erregistraturik badaude eta Udalarekin lankidetzan aritzen badira.

c) Goiko bi ataletan aipatutako entitate eta elkarte guztiak.

15. Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen 3. artikulua kultur mezenasgoaren modalitateak ezartzen ditu. Zein dira modalitateak?

a) Dohaintzak, erabilera maileguak edo komodatua eta lankidetzazko hitzarmenak.

b) Babesletza, dohaintzak eta erabilera maileguak edo komodatua.

c) Goiko bi ataletan aipatutako guztiak.

16. Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legearen arabera, zer organori dagokio ebaluatzea interes sozialeko deklarazioak?

a) Kultura Departamentuko Mezenasgo Atalari.

b) Kultura Departamentuko Kultura Ekintzako Atalari.

c) Nafarroako Kultura Kontseiluari.

17. Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen 5. artikulua arabera, beheko zein hartuko dira interes sozialekotzat berariazko deklarazioa egin behar izan gabe?

a) Nafarroako toki-entitateek eta Nafarroan finkatutako unibertsitate publikoek antolatutakoak.

b) Aipatutako departamentu horrek hitzarmen edo diru-laguntza bidez sustatu edo laguntzen dituenak, 4. artikuluan aurreikusitako pertsona edo entitate onuradunek eginak badira.

c) Goiko bi ataletan aipatutako guztiak.

18. Kultura Departamentuaren diru-laguntzetarako deialdi hauetako zein dago zuzenduta Nafarroako toki-entitateei?

a) ARTEM jaialdia izenburuko arte eszenikoen jaialdi eta sariketarako diru-laguntzen deialdia.

b) Artea eta Kultura programa.

c) Sustraiak-Raíces 2018 izenburuko herri-kultura tradizionala hedatzeko proiektuak egitera bideratutako diru-laguntzak.

19. Noiz onetsi zen Nafarroako Kultura Plan Estrategikoa?

a) 2016an.

b) 2017an.

c) Ez da onetsi.

20. Nafarroako Gobernuo Kultura Departamentuko Ekintza Kulturaleko Atalaren proiektu hauetako zein egin da, zati batean, Barañain Auditorioan?

- a) 400/1000.
- b) Punto de vista.
- c) DNA Dantza Garaikideko Jaialdia.

21. Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak otsailaren 14an emandako 9E/2018 Foru Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunak baldintza hauetako zeinetara EZ daude behartuta (Foru agindu horren bidez, diru-laguntza hauek emateko deialdia onetsi da: "Nafarroako udalentsako diru-laguntzak Foru Komunitateko udal agertokietan arte eszeniko eta musikal profesionalen programazioa (Udal Platea Local) bultzatzeko 2018. urtean")

- a) Udalerri izatera.
- b) Nafarroako Antzoki Sarea Elkarteari atxikitako eszena-espazioren baten titularra izatera.
- c) Nafarroako Gobernuo 2018ko aurrekontuetan kontu-sail izenduna duten eszena-espazioen erakunde edo entitateen zerrendan egotera.

22. Barañaingo Udalari zuzendutako idazki batean interesdun bat baino gehiago agertzen direnean, haren ondoriozko jarduketak hauekin egingo dira:

- a) Interesdun guztiekin.
- b) Lehen postuan agertzen denarekin.
- c) Ordezkarri bat izendatzeko eskatu beharko litzaieke.

23. Adierazi baieztapen hauetan zein den ZUZENA:

- a) Administrazio Publikoek jakinarazi beharko diete interesdunei Administrazioarekin baliabide elektronikoen bidez harremanetan jartzeko aukera dutela.
- b) Administrazio Publikoek erraztu beharko diete interesdunei Administrazioarekin baliabide elektronikoen bidez harremanetan jartzea.
- c) Administrazio Publikoek bermatu beharko diete interesdunei Administrazioarekin baliabide elektronikoen bidez harremanetan jartzea.

24. Adierazi baieztapen hauetan zein den OKERRA:

- a) Pertsonak kasu bakoitzean aplikatu beharreko Legeak ezarritako moduan kolaboratuko dute Administrazioarekin.
- b) Pertsonak derrigorrez agertuko beharko dute bulego publikoetan, izan aurrez aurre, izan bitarteko elektronikoen bidez, Administrazioak horrelakorik egokitzen jotzen duen bakoitzean.
- c) Prozedura bateko interesdunak ezagutuko balituzte prozeduran agertu ez diren beste interesdun batzuen identifikazioa ahalbidetuko duten datuak, derrigortuta egongo liriteke ekiten ari den Administrazioari ematera.

25. Prozedura bat ebazteko eta hura jakinarazteko gehieneko epea atzeratu ahalko da:

- a) Hutsuneak zuzentzea edo agiriak edota ebazteko beharrezkoak diren bestelako elementuak ekartzea eskatu behar zaionean edozein interesaturi.
- b) Administrazioak erabakitzen duenean, ebazpena eman behar duen administrazio-unitatean espedienteak metatu direlako.
- c) Administrazioak hala erabakita, ebazpen ziodun baten bidez.

26. Markatu baieztapen ZUZENA

- a) Baldin eta Legeak edo Europar Batasunaren Zuzenbideak beste zenbaketarik adierazten ez badu, epeak egunen arabera zenbatzen badira, egun baliodunak direla ulertuko da, hots, larunbat, igande eta jaiegunak ez dira zenbatuko.
- b) Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera atzeratuko dela ulertuko da.
- c) Biak.

27. Markatu baieztapen ZUZENA

- a) Udalbatzako kideek osoko bilkura batean ahoz egindako galderak hurrengo bilkuran erantzungo dira interpelatutako pertsonak segituan erantzun ez baditu.
- b) Udalbatzako kideek osoko bilkura batean ahoz egindako galderak bilkura horretan bertan erantzun beharko dira.
- c) Udalbatzako kideek ezin dute ahozko galderarik egin osoko bilkura batean.

28. Honela hartzen dira akordioak, oro har, osoko bilkuretan:

- a) Bertan dauden kideen gehiengo soiluz.
- b) Bertan dauden kideen gehiengo kalifikatuz.
- c) Tokiko Gobernu batzordeko kideen gehiengo.

29. Nafarroako toki-entitateen egintza eta akordioen prozedura eta araubide juridikoa hauetako bati egokituko zaio:

- a) Uztailaren 2ko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeari.
- b) Gaia arautzen duen indarreko legedia orokorrari.
- c) Biei.

30. Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean egindako gora jotzeko errekursoak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren kontrolaren mende dauden Nafarroako toki-administrazioek erabakitako ekintza eta akordioen aurrean,...:

- a) Nahitaezkoak dira edozein kasutan.
- b) Nahitaezkoak dira araudiak espresuki aurreikusitako kasuetan soilik.
- c) Hautazkoak dira beti.

